

Noaia!!



Hileta zibilak ere
egin ahal izango dira



Asteartean kantari aterako dira Udarregiko ikasleak

Badatoz Olentzero eta Mari Domingi

Marije
Arropa denda

Etxebeste, 3 - 943 36 11 06 - **USURBIL**

TAXI 24h

607 92 87 70 Angel
943 00 44 83
USURBIL

Otar-Goxo
Elkargak

Gabonetako berezitasunak
eta otarrak prezio ezin hobean

Harategiko berezitasunak

- Txahal azpizuna
- Behi azpizuna
- Esneko arkumea
- Txerrikumea
- Antxumea
- Kapoia
- Pularda, ehiza,
- Rosbeef, entrekota (1kg)...

Urdaitegiko berezitasunak

- Foie frexkoa
- Ahate konfita,
- Mikuít
- Txatka naturala
- Izozkina
- Mahatsaz betetako pintada
- Budinak
- Iberiko aukera zabala

Fruta denda berezitasunak

- Ananak
- Gaztainak
- Mahatsa
- Orejoiak
- Kiwiak
- Bertako barazkiak
- Fruten selekzio paregabea

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Albistea iruditan !!

Glasgow eta Londonen izan dira Lanbide Eskolakoak

Usurbilgo Lanbide Eskolako Patxi Vaquerizo zuzendaria eta Iñaki Mugika arduraduna Glasgow eta London hirietan izan dira, Donostiako Energia Berriztagarrien Klusterraren partaide bezala.

Usurbilgo Lanbide Eskola, Innobasque, Kutxa eta Foru Aldundiarekin batera, Energia Berriztagarrien alde ikerketa zein formakuntza lanetan aitzindaria da. Hori dela eta, Eskoziak zein Ingalaterrak energia minieoliken alde egiten ari diren apostua ezagutzen egon dira.

Aipagarria da Eskoziako gobernuak egin duen plana, 2020. urterako energiaren %80a berriztagarrien bitartez lortu nahi baitu.

Londonen Cereb ikerketa zentroa bisitatu zuten, zero emisioa duten eraikuntzen diseinu eta kudeaketaren aintzindari dena.



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN INGURUKO GUNEAK BISITATU DITUZTE.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubema, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubema, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

2011KO ORDENANTZA FISKALAK _____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

HILETA ZIBILAK EGITEKO ARAUDIA, PREST _____ 9. OR.

GANDIAGAREN POEMAK ETA DOINUAK _____ 11. OR.

USURBIL FT TALDEKO INFANTILAK _____ 15. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olándegia - Gozotegia

LABE-GOXO

JOSETXO IKATZETA



Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25



UGAITZ AGIRRE

Egunsenti ilunen itxaron gelatik

*Zaude ixilik haurra, ez egin negarrik
munduak ez du eta malkoen beharrik*
Xabier Lete

Hamarretako albistegia.
Diote hitzak amaitu zaizkizula,
eskuak azken puntua marraztu duela.
Haizeak bortizki astintzen ditu
kaleko zuhaitzak
hara eta hona
olatuak naufragaturiko itsasontzi baten moduan.
Su-etenik gabe.
Zure hatsa berarekin lotu dela dirudi.

Jendeak galdetzen du:
"Nun hago?
Zein larretan?"
Baina ez dute erantzunik entzuten.
Auskalo zergatik.

Gogoan dut oraindik egunbatez
zure liburuan nire izena tinta beltzez marraztu
zenueneko.
Salda bero bat hartzeko zenituen gogoak,
eserleku baten erosotasuna sentitzeko.
VHS zaharretan

giltzapeturik geratu dira
don Juan Francisco zenari
eginiko imitazio irriz jantzia.
Iraganaren armiarma sarean geldi kantu amaierako
txalo zaparrada.

Dantzamos?
Bals bat besterik ez,
bat bakarra.
Bihotzak une batez irribarre bat josi dezan
akordeoiaren ohialean.

Eta aurpegia une batez bakarrik alaitzen dugularik
begiak treneko leihotik ihes egiten dit.
Izarrak aurkitu nahian edo,
baina haize bortitzak hauts bihurtzen ditu
eta bere magalean daroazi
hegaka unibertsoan zehar
lehen eguzki izpiren batekin besarkatzen delarik infinituan.
Zure bila.
Nun hago? Zein larretan?
Auskalo.
Baina karta bat idatziko dizut
ea erantzuten didazun.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!

3⁴ urte nituen eta urte eta erdiko
alaba tumore bat neukala esan
zidatenean. Txarra zela adierazi zidaten
gainera. Sustoa ikaragarria izan zen eta
egun oso ilunak bizitu ziren nire etxean.
Jada egun haietatik urte bat pasa da,
urte gogorra izan da.

Gaixotasun hau oso krudela da, isil-
pean egiten baitu lana eta ondorioak oso
larriak izan baitaitezke. Gainera edozei-
ni toka dakioke. Aurre egiteko dagoen
tratamendua eta bere ondorioak ere
benetan gogorrak dira.

Minbiziaren bizipen honetatik pasa
denak bakarrik daki horrelako esperien-
tzia bizitzeak zer suposatzen duen.
Honetatik pasa garen gehienok uste dut
egiten dugula galdera hau: zergatik niri?
Zergatik orain? Zeren ondorioz? Baina
zoritxarrez edo zorionez, erantzunik ez
digu inork ematen, tokatu egin omen
zaigu. Estatistiken arabera familia bakoit-
tzean minbizi kasu bat egongo omen da,
eta noski, gorputzeko ileak tente jartzen
dira hau entzutean. Zergatik kasuen
gehitze hau? Inork ez du erantzun garbi-
rik ematen, baldin eta arrisku faktoreek

Minbizia dela eta

ez badute eragin zuzena izan minbiziaren
lokalizazioarekin. Eta hala ere...

Usurbilgo kasuan, eta Atxegaldeko
(Usurbilgo) kutsadura dela eta ez dela,
oso ongi iruditzen zait ke eta kutsadura
elektromagnetikoaren tasak neurtzea (eta
zer esanik ez errauskailua ondoan jartzen
badigute). Hori egin behar da eta egiten
jarraitu behar da, baina oraingoz neurke-
tak egin ondoren, badirudi ez dagoela
kezkatzeko daturik, eta Usurbilen dago-
en minbizi kasuen tasa ere ez dela beste
herrietan baino handiagoa.

Zoritxarrez, ordea, kasuen gehitzea
bizituko omen dugu oraindik, eta hone-
tatik pasa direnek dioten bezala, ahal den
normaltasun handienarekin hartzea
hobe, horrek gaixotasunari jarrera bai-
korrarekin aurre egiteko aukera ematen
baitu. Hau barneratzea kostatzen da,
baina egia da Usurbilgo kasuan,
Atxegalden bakarrik ez, beste auzoetan
ere, hala nola Kale Zaharren
(Belmonten), Kaxkoan... kasuak asko
direla.

Zorionez, tratamenduak gero eta era-
ginkorragoak direla, heriotza tasa gutxitu

dela eta gaixotasunaren ezagutza gero eta
handiagoa dela ere esan egin behar da.

Esperientzia hau bizitu dugunoi
beraz, gaixotasunaren aurka borrokatzea
besterik ez zaigu geratzen oraingoz, eta
horretarako inguruko maitasuna eta
laguntza edukitzea ezinbestekoa da.

Horregatik, tarte hau aprobetxatu
nahi dut nire alaba, bikote, ama, ahizpa,
aita, amaginarreba, koinatu-koinatak,
ilobak, osaba-izebak, lehengusuak, koa-
drila eta betiko lagunak eskertzeko.
Zuen laguntzarik gabe askoz zailagoa
izango zen esperientzia honi aurre egi-
tea, hori ziur izan, eta zera adierazi nahi
dizuet: a zer suertea zuek ondoan izatea!

Era berean gogoan eduki nahiko
nituzke borroka honetan bidean geratu
diren herritarrak eta beraien ondoan
egon zaretenak, borroka hori gaintitu
duzuenak, eta indar eta animo handiena
borroka horretan diharduzuenoi eta
zuen ingurukoei, asko behar baita
horretatik. Merezi duzelako eta dugu-
lako! Bai horixe!

Olatz Matxain Zubillaga

2011ko Ordenantza Fiskalak, behin betiko onartuak

Datorren urterako zerga, tasa eta prezioak onartu ditu jada Usurbilgo Udalak. Salbuespen pare bat kenduta, KPI-aren zenbatekoa kontuan hartuta aplikatuko da igoera. Alkateak duen kalitate bozka baliatuta onartu ziren ordenantza fiskalak, azaroa amaieran burutu zen osoko ohiko bilkuran.

Udal teknikariak prestatutako txostenean aipatzen denez, urte amaiera hone tarako Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) %2-2,5 artean ibiliko dela aurreikusten da. Ehuneko hori da hain zuzen, 2011ko Ordenantza Fiskaletan aplikatuko den igoera. Haur Eskolako hezkuntza zerbitzua eta hondakinen bilketa eta kudeaketa zerbitzua aldiz, igoera horretatik salbuetsita geratuko dira.

Oreka bila

0-3 urte arteko hezkuntza zikloko tarifa gehienak KPI indizearen arabera eguneratu diren arren, tarifak elkarren artean orekatu asmoz, egun erdiko zerbitzuetan igoera handiagoak proposatu dira.

Hondakinen bilketa eta kudeaketa tasei dagokienean, etxebizitzetara lotutako zerbitzuan KPI-aren igoera aplikatuko da.

Aldiz, industria eta merkatal establezimenduetan pisuaren orde, bolumenaren arabera neurketa burutuko da aurrerantz.

Erreklamazioak, atzera

Joan den urrian buruturiko bilkuran hasieraz onartu ziren Ordenantza Fiskalak. Gerora, jendaurrean egon diren artean hiru alegazio aurkeztu dira. Erreklamazioetako bat Alkarbide udal



AZAROKO OHIKO UDALBATZARREAN ONARTU ZIREN ZERGA ETA TASA BERRIAK.

taldeak aurkeztu zuen. Bozeramaile Luis Mari Ormaetxeak azken osoko bilkuran aipatzen zuenez, proposamen hau hasieraz onartu zenean, "bi zerga bozkatu gabe geratu ziren, diktamenean egonik". Egoera hau aldatzeko borondatearik ez zegoela eta, aurka bozkatu zutela iragarri zuen Ormaetxeak. Xabier Mikel Errekondo alkateak prozedura guztia zuzena izan dela ziurtatu zion.

Haur Eskolako tasa

Haur Eskolako tasen igoera ahotan hartu zuen bestalde, Aralarreko ordezkari Joxe Ramon Furundarenak. "Ez zen esan prezioa hainbeste igoko zenik. Bidezkoa da gurasoen erreklamazioa eta berau onartzearen alde gaude", zehaztu zuen, alegazioetako bat Haur Eskolako guraso talde batek aurkeztu baitu. Alkateak erantzun zionez, "eskari horrek proiektuaren aldaketa eskatzen du, beste modu bateko lanketa edo prozedura".

EAJ-PNV-ko ordezkari Iñaki Illarramendik proposamenaren aurka bozkatuko zuela iragarri zuen, Partzuergoan sartzearen alde daudela adierazi baitzuen. PSE-EE-ko ordezkariak erreklamazioak aintzat ez hartzearen alde agertu zen arren, abstentziora joko zuela adierazi zuen.

Berdinketak bozketan

Ebazpena bere osotasunean onartu edo ez erabaki aurretik, aurkeztu diren hiru alegazioak banaka bozkatu zituzten udal ordezkariak. Hirurak aintzat ez hartzea erabaki zuen udalbatzak gehiago osoz.

Ebazpenaren bozketan, berdinketa gertatu zen. Proposamena gobernu taldeak babestu zuen. Aurka bozkatu zuten Aralar, Alkarbide eta EAJ-PNV-ko udal ordezkariak. Aldiz, PSE-EE-ko ordezkaria abstentitu zen. Emaizta ikusita, bozketa errepikatu zen, eta bigarrenaz, gauza bera gertatu zela ikusirik, datorren urteko Ordenantza Fiskalak alkatearen kalitate bozka baliatuta onartu ziren azkenean.

Aizpurua kasuan, Udala herri akusazio

Iazko abenduaren 11n aske geratu zen Joxe Domingo Aizpurua frantziar estatuan jarri zioten espetxe zigorra bete ondoren. Handik lau hilabetera orde, apirilaren 14an Polizia Nazionalak atxilotu zuen berriz. Egun horietan jasotako tratu txarragatik salaketa aurkeztu du Aizpurua, eta Usurbilgo Udala herri akusazio gisa aurkeztuko da auzian.

Aizpurua inkomunikatua egon zen bost egunetan, tratu txarrak jaso zituela salatu zuen. Inkomunikazio epea igarota aske utzi zuten usurbildarra.

Azken osoko bilkuran berri eman zenez, Usurbilgo Udala herri-akusazio gisa aurkeztuko da auzi honetan.

Abenduaren 22an, bilera irekia Sutegin

Usurbilgo hainbat erabaki estrategiko (errautsategia tartean) bere barne hartzen dituen Donostialdea-Bidasoa Beherako Lurraldearen Zatikako Plana hasieraz onartu berri dute, Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez. Beste modu batean esanda, aipatu dokumentuak udalerriaren etorkizuna antolatzeko du helburu, errepide sarea, azpiegitura, industria edota etxebizitza gaiak

dagokienean. Gaiak duen garrantzia ikusita, eta hasieraz onartu duten plana entzunaldi izapidetan egonik, dokumentuaren nondik norakoak aurkezteko bilerara deitu du Udalak abenduaren 22rako. Aurkezpen ekitaldia, arratsaldeko 18:30ean burutuko da Sutegin auditorioan. Udaletik berri eman dutenez, planari buruzko dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako webgunean aurki daiteke.

KALEBERRI


BEGOÑA REKONDO

Hitzak



Vasconia, Navarra, Nafarroa, Euzkadi, Euskadi, Euskal Herria... Hainbat hitz gure lurraldea, herrialdea identifikatzeko. Garai bakoitzean eta interes batzuen arabera jarritako izenak. Hau azaltzeko, abenduaren 9an, Nafartarrak kultur elkarteak hitzaldi bat antolatu zuen. Jende ugari azaldu zen bertara. Gure herriaren historiaren laburpen bat egin zuten, mapak lagungarri zituztela. Ikusi ahal izan genuen nola 1000. urtetik aurrera gutxi gorabehera, pixkanaka, lurraldea txikiagoa bihurtu den eta batez ere zatituagoa. Hizlarien iritziz Nafarroa izenarekin bakarrik izan da sujeta politikoa gure herria. Beraientzat gainerako izenek ez dute adierazten euskaldunen izate politikoa. Euskal Herria izena adibidez, euskaraz hitz egiten duen talde bat izango litzateke, ez lirateke sartuko bertan euskaraz hitz egiten ez dutenak, beraien arabera. Euzkadi izena berriz, Sabino Aranak asmatutakoa, eta eguzki hitzetik datorrena, oso mugatua omen dago.

Banekien hitzaldira joan aurretik ezer gutxi nekiela geure historiari buruz, eta ezjakintasun hori nahiko orokorra dela Euskal Herrian. Gehienok ez dugu ondo ezagutzen gure ira-



gana eta ezjakintasun honekin egiten ditugu aukerak eta bideak. Bestalde, hitzekin eta Nafarroarekin jarraituz, Euskal Telebistako Sautrela saioan, Xabier Leteri egindako elkarrizketa batean, aurkezleak galdera bat egiten dio: “zer da zuretzat Nafarroa Arragoa?”, “Aberri galdu baten nostalgia”, erantzuten dio. Arragoa hitza, askotan abestutakoa da, zer esaten den jakin gabe. Erdaraz “crisol”: gauza edo elementu desberdinak nahasten diren tokia. Nafarroa, pertsona desberdinak nahasten diren tokia.

KALEZAR

INMA BALDA

Santa Luzia eta argia



Egutegiak horrela agintzen du. Egun hauetan omen ditugu gaurik luzeenak eta bere horrek, jakina, egunik laburrenak dakartza. Baina hau ez da gaur goizeko kontua; aspalditik esaten zaigu: “Abenduko eguna, argitu orduko iluna”. Hala, gaur egun ere, iluntasunak bere atzaparretan harrapatzen gaitu eta ihesi melankoliatsuan murgiltzen gara. Gaur eta lehen, gizakiok argiaren bila, hori da guztion patua! Baina, denontzat dago itxaropena! Gure poetak garbi esaten digu ez gaituela izutu behar negu hurbilak eta beti, izotz ondoko eguzkia aurkitu behar dugula. Hor ote dago zoriontasuna? Argiaren bila, argiaren nahia, argiaren beharra. Neguko solstizioaren atarian gaude, dudarik ez dago. Ez gara ohar-tzen, baina, dagoeneko egunak ilunari astiro-astiro, patxada betean, bidea irabazten dio.

Egun berriak ditugu, beraz, hemendik aurrera beteko ditugunak: argiz osatutako egunak. Badator, orduan, gure iluntasuna argitzen lagunduko digun argia. Eta bete ditzagun gure barne gogoak argi goxo eta maitekor horretaz. Beraz, eta bukatzeko, Eguberri On izan dezazuela auzotar eta herritar maiteok!

SANTUENEA

JON ETXABE

Soñuba ta zikiña

Hauts maluta berri bat, leihotik agertu da eta mantso-mantso nire flexoaren gainean gelditu da, “Obra madarikatuak, noiz bukatuko ote dituzte?” entzun dezaket nire ama, xurgagailua pasatzen. Isabel II.aren erreginaldia errepasatzen ari nintzen baina daratulu erraldoiak bere ohiko burrunda atera du eta ezin kontzentratu horrela!

Frontoi berria egiten ari dira, etxe alboan, auzoari itxura berria eman eta haurrek nahiz helduek, jolasteko leku atsegin bat izan dezaten.

Bide batez, auzoko plaza, lehen eskubaloiko zelaia ere eraberritzen ari dira. Ez dakit zein kale, oinezkoentzako moldatuko dutela ere uste dut; baina argi dago gauza bat: lurra mugitzen ari dira, eta neure amonak esango lukeen bezala “Soñuba ta zikiña besteik ezteu!”.

Mereziko duelakoan nago, behin obrak bukatuta, auzotarrek, siesta lasai bota ahal izango baitute eta bide batez haurrek leku babes batean jolastu ahal izango dutelako. Nik neurearekin jarraituko dut... “1848an hainbat altxamendu egon ziren...”.



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

Lanen amaiera



Olentzerok, abenduaren 24ko gaue-ra itxaron gabe, honez gero Aginaga bisitatu duela esan daiteke. Halakoetan sortzen den ohiko nahasmenaren ostean, ekainaz geroztik azken hilabeteotan burutu diren lanak amaitu dira eta zahar egoitzako eraikineko igogailu berria erabiltzeko moduan dago jada. Frontoi pareko ataritik sartuta, igogailu berria martxan da. Joan den azaroaren 28an inauguratu eta jarri zuten martxan, 80 urteko aginagarriak omentzeko egin zen ospakizun bazkarian hain zuzen.

Aurrerantzean, inolako trabarik gabe igo ahal izango dugu aginagatarrok zahar egoitzara, baita pisu bat gorago dagoen eskulanak egiteko aretoa edota haur eta gazteen aisialdi gunea den ludotekara ere.

Zalantzarik gabe aginagarren mugikortasuna hobetuko duen igogailu berriko lanak amaitu dira beraz. Eta bukatzeaz dira baita, eskola atariko parkeko lurzoruan burutzen ari diren hobetze obrak ere.

Eguberrietako kontuekin jarraituz, urte garai honetako kantutegia errepertorioaren errepaso ederra emango diogu aginagarrok abenduaren 24an. Gabon kantak abestera irtete-



ko hitzordua finkatu dute, goizeko 9:00etan Elizan. Ez ahaztu baserritar jantzia!

Bestelako hitzordurik ere izango dugu. Asteotako protagonistak hain zuzen, etxeko txikienak izango dira. Santo Tomas egunean oportetean murgilduko dira Aginagako haurrak. Eta nahi duenak aspertzeko betarik ez du izango, udaran zehar bezala, urte garai honetan ere ludotekan jolas-teko aukera izango baitute gabonetan. Urteko azken kronika denez honakoa, ondo pasa egunok, ondo amaitu 2010. urtea eta hobeto hasi datorrena. Hurrengora arte!

ATXEGALDE

MA JESUS URBIETA

Zubi luzea



Urtero bezala, jai egun eta zubi luzea delako, jendeak astea osatzen du oporraildirako. Aldez aurretik erabakitzen dute noski, zer edo nola pasa egun horiek. Kanpora bidaia, edo bertan gelditu, eta aukeraketaren arabera, zain egoten gara ilusioz beteta. Kanpora hegazkinez joateko zain zeudenek ezusteko handia izan dute oraingoan, kontroladoreek beren lana utzi eta hankaz gora gelditu dira aireportuak, espainiar estatu guztian. Irten behar zuten egunetan, jendea oso kezkatuta eta urduri zegoen eta honek eragin larriak utzi ditu. Herriar batzuk ere suertatu ziren tartean, eta ezingo dute erraz ahaztu gertatutakoa. Zergatik ote da? Erru gutxien duenak ordaindu behar gehienetan.

Bestalde, Santa Luzia ere pasa dugu eta urtero bezala koadrilak osatu eta batzuk bazkaria edo besteak afari goxoa, elkarrekin dastatu ahal izan dute herriko jatetxetan. Zumarraga aldera ere bueltatxo bat egin eta bertako giroaz gozatu ahal izan dute batzuk, aspaldiko tradizioari helduaz. Laster, Santo Tomas eguna dator eta txistorrak prestatzen hasi dira gure auzoko Joakiñen harategian. Anima zaitezte!

ZUBIETA

PELLO ARANBURU

Gabon kantuen entsegua

Gabon egunean, urtero kantuan ateratzen gara baserriz baserri. Aurten ere hala egiteko asmoa dugu eta horretarako entsegu eguna jarria dugu abenduaren 17an, arratsaldeko 7:00etan, Kaxkapen. Animatu zaitezte saio bakarra da eta.



Baina ohar horrekin batera heldu zaizkigu hainbat kezka eta proposamen. Aspalditik batzuentzat luzea izaten da jardunaldia, ia lau ordukoa, eta umeekin ez da eroso.

Beste batzuk, umeak ia bi metro luze dituztela, antolaketak beste eskuetan nahiago lukete. Eta beste batzuentzat itxura tristekoa omen da segizioa, egiten den moduan. Ikusten duzuenek, bakoitzak berea.

Ohitura horrek izan ditu itxura aldatze asko denboran zehar: ibilbideak, orduak, ekitaldia bera egiteko moduak... eta hala behar du, ohitura guztiek bezala, biziko bada. Beraz, beharbada, horren inguruan ere hitz egin beharko genuke horretan interesa dugunok. Ostiral honetako, abenduaren 17ko bilera egokia izan liteke horretarako ere.

Hauteskunde programa osatzeko, herri partehartzea bultzatzen ari da Hamaikabat alderdia

Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkatezarako hautagai izendatu zuten duela hilabete batzuk. Egun hauetan, Hamaikabateko kideak hauteskunde programa osatzen ari dira. Hamaikabateko hautagaiak azpimarritu duenez, "herri politikagintzatik lortu behar dugu, bitarteko guztiakin, gizarte bokazioa eta zerbitzu publikorako gaitasuna duten pertsonak ilusionatzea".

Luismari Ormaetxeak positiboki baloratu du nolako harrera izan duen Hamaikabaten hauteskunde programa osatzeko herritarrei ireki zaien bidea.

Ekarpenak jasotzen ari dira

"Oso ekarpen interesateak jasotzen ari gara, herritarren egunerokotasunarekin lotuak; eta gainera gure alderdiak Usurbilerako finkatuak dituen ardatzekin bat datozenak: Atez ateko bilketa sis-

teman atzera egitea, bilketa edukiontzien bidez eginez; gazteek duten etxebizitza premiari lehenbailehen heltzea; eskola publikoaren alde apustua egitea eta behin eta berriz esaten ari dugutena eta udal eginkizunetaz usurbildarrek duten interes mailaren adierazgarri: udal kudeaketaren egoerari aurre egitea, exijitzen zaigu azken urteetako udal kudeaketari auditoretza bat egitea, goitik beharainokoa".

Hala nola, www.h1usurbil.net bidez ireki den komunikazio bidea azpimarritu du Luis Mari Ormaetxeak, "gure espektatiba hobereak gainditu dituen tresna izaten ari da".

Talde anitza baina elkartua

Azkenik, herriaz kezkatutik dauden pertsonak beren hauteskunde zerrendan biltzeko Hamaikabat Usurbilek duen borondateaz mintzo dira prentsa oharre-



LUISMARI ORMAETXEA,
HAMAIKABAT-eko HAUTAGAIA.

an, era herrikoian profil "politikoa" edo "ideologiztua" izan gabe: "gaur arte pertsona ezberdinekin izan ditugun elkarriketak oso aberatsak izan dira, eta aurreratu dezakegu talde anitza baina elkartua, eta Usurbil eta usurbildarrek konprometitua aurkeztuko dugula, usurbildarren beharrei erantzuteko asmoarekin aritzekotan", Ormaetxeak NOAUA!ri igorritako prentsa oharrean ziurtatu duenez.

Legalizazioari atxikimendua adierazteko giza katea antolatu du Usurbilgo ezker abertzaleak

Azaroaren 27an, ezker abertzaleak proiektu politiko berri bat eratzeko urratsa eman zuen. Datorren larunbatean, hilaren 18an, proiektu horri babesa emateko deia egin zaie usurbildarrei: "13:00ean frontoitik abiatuta, giza katea egingo dugu udaletxeko plazaraino eta, modu horretara, herriz herri, gure atxikimendua adieraziko diogu legalizazioari, giza kate erraldoi bat irudikatuz", adierazi dute prentsa-ohar bidez.

Oinarri hauekin konprometituko da proiektu politiko berria, ezker abertzalearen esanetan: "independentzia, euskalduntzea, sozialismoa, justizia eta askatasunean oinarritutako etorkizun baketsuaren alde, feminismoa, herrien arteko elkartasun internazionalista eta anti-inperialista eta demokrazia parte-hartzailea".

Konpromiso politiko eta ideologiko

horietatik abiatuta, antolakunde berria, ondoko printzipioetan oinarrituko da: "eztabaida eta erabakitzeke barne egituren burujabetza ziurtatuko da, inongo menpekotasun edo baldintzatetik libre, eta bere ildo politikoa zehazteko orduan autonomia osoarekin arituko da".

Bide politiko eta demokratikoak

Oharrean diotenez, "proiektu politiko eta antolakunde berri honek soilik bide politiko eta demokratikoez erakusten duen konpromisoa tinkoa eta zalanztarik gabekoa da eta ez da egongo egoeraren araberrako faktoreen edo aldagai taktikoen menpe; eta, beraz, helburu politikoen lorpenerako indarkeriaren erabilpena edo erabilpenaren mehatxua errefusatu du. Horrek berekin dakar ekinbide politikorako mobilizazio eta atxikimendu herritarra, desobedientzia zibila, borroka ideologikoa eta parte hartze



EZKER ABERTZALEAK DEITUTAKO
GIZA KATEA LARUNBATEAN IZAN-
GO DA, 13:00EAN FRONTOIAN.

politiko-instituzionala erabiltzeko konpromisoa". Estrategia independentista eta sozialistaren baitan "ez dagoela indarkeriazko mehatxuarentzat inongo tarterik" ziurtatzen du Usurbilgo ezker abertzaleak NOAUA!ra igorritako idatzian.

Giza katea larunbat honetan izango da eta Usurbilgo frontoitik abiatuko da eguerdiko 13:00ean.

Hileta eta omenaldi zibilak egiteko aukera gertuago dago Usurbilen

Hileta eta omenaldi zibilak egiteko udal ordenantza aurkeztu eta hasieraz onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Hileta hauen araudiak ekitaldiok burutzeko prozedura, eskubide zein betebeharrak jasotzen ditu. Modu honetan, erlijiorik gabeko hiletak egiteko aukera bermatu eta arautu nahi du Usurbilgo Udalak. Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago.

“Erlijiorik gabe eta norberaren bizi-proiektuaren arabera bizitzera aukeratu duten herritarrei ospakizun duin eta pertsonala eskaintzeko behar sozialean dute oinarria”, Udaletik bultzatu nahi den egitasmoak.

UDAL ORDENANTZA

“Erabakia GAO-n argitaratu eta 30 eguneko epea ireki da erreklamazioak aurkezteko”

Udal ordenantza honen aurrekari gisa, joan den urrian Gipuzkoako Batzar Nagusiek gai honi lotuta onartu zen ebazpena aipatzen da. Testu horrek zerbitzu publiko hau arautu eta hileta zibilak egiteko toki publiko duinak herritarren eskueran jartzea aholkatzen die udalei, “erlijio-zeremonietara ez joatea hautatzen duten pertsonen modu duinean agur esateko aukera” ematea aitortzearekin batera.

Alegazio epea

Gehiengo osoz onartu zen hasieraz



TANATORIOAN BERTAN EGIN AHAL IZANGO DIRA HILETA ZIBILAK.

udal ordenantza hau. Bozkatu baino lehen, ordenantzaren aldaketa bat txertatzea proposatu zuten Alkarbide udal taldeak. Hileta zibilen ordutegia udal ordenantzaren jaso dagoena baino zabalagoa izatea eskatu zuen Salome Portuk, besteak beste, baita nahi duenak hiletak goizez burutzeko aukera ematea ere, gorpuak ere goizez lurpera-

tzen direla jakinik. Ideia ontzat jo zen udalbatzan.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, erreklamazioak aurkezteko 30 laneguneko epea zabaldu da. Tarte horretan alegazioak aurkeztuko ez balitz, udal ordenantza hau behin betirako onartuko da.

Araudiaren ezaugarrietako batzuk

Hileta zibilen inguruko prozedura edota eskubide zein betebeharrak zehazten ditu hasieraz onartu den udal ordenantzak. Hona hemen bere ezaugarri batzuk:

-Eremu posibleak: hilerriko tanatorioko lokala edo Askatasuna plaza.

-Eskakadak nola egin: udal erregistroan, datuak helarazi beharko dira; baimena eskatzen duenaren eta hildakoaren

datuak, hileta zibila noiz egin nahi den adieraztea, ekitaldirako beharko den materialaren deskribapena...

-Hiletak astelehenetik larunbatera burutuko dira.

-Hiletaren ordutegia: 19:00etan (aldatu daitekeen arren).

-Iraupena: ordubete gehienez jota.

Oharra: ordenantza hasieraz onartu denez, ezaugarriok alda daitezke.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behe
LASARTE-ORIA



TEL. 36 61 97

Udarregiko ikasleek kantari hartuko dituzte Gabonetako oporrak

Santo Tomas egunean oporretan murgilduko dira Udarregi ikastolako ikasle eta irakasleak. Urtea agurtu eta eguberriei ongi etorria emateko ordea, azken zeregin bat izango dute. HH, LH, eta DBHko ikasle eta irakasleak gabon kantak abestera irtengo dira abenduaren 21ean. Kalezar eta Kaxko ingurua girotuko dute datorren astearte goizean.

Eguberriak aspalditik ditugu ate joka, baina badira oso gertu daudela jabetzen laguntzen duten ekitaldiak. Eguberriei oporraldiengatik harrera egiten lehenengoetakoak Udarregi ikastolakoak izan ohi dira. Oporretara joan aurreko azken klase eguna berezia izan ohi dute. Baserritar jantziak soinean gabon kantak abestera irten ohi dira, ikasketa ziklo guztietako ikasle eta irakasleak. Aurten, Santo Tomas egunez burutuko dute erronda, abenduaren 21ean beraz.

Orkestra eta trikitilariak, bidelagun

Udarregi ikastola hustuko da datorren astearte goizean, gehienak kalean gabon kantak abesten arituko baitira. Hori bai, ziklo bakoitzeko taldeek euren ibilbide, ordutegi eta kantutegi propioa izango dute.

IKASTOLAREN OHARRA

“Abenduaren 21ean autobusa hartu behar duten HHko ikasleek, Bordatxora gerturatu beharko dute, 12:30ean”

LH-ko eta DBH-ko ikasle eta irakasleak izango dira goiztiarrenak, 9:30etan irtengo baitira ikastolatik, hori bai norabide desberdinetan. LHkoak Kalezar aldera joatekoak dira. Auzunea zeharkatu eta Kaxkora jaitsiko dira gero, Bordatxo pareko erroton-



LH ETA DBH-KO IKASLE ETA IRAKASLEAK GOIZEKO 9:30EAN ATERRAKO DIRA; HH-KO IKASLE ETA IRAKASLEAK, 11:25EAN.

datik gora ikastolara itzultzeko. Ikastolako trikitilariak girotuko dute ibilbidea. “Kanta Kantari”, “Mendi Aldetik” edo “Olentzero begi gorri” abestiak kantatuko dituzte.

DBH-koak aldiz, Atxegaldetik barrena abiatuko dira. Kale Nagusia zeharkatu, Eguzkitzaldetik Bordatxo pareko errotondara igoko dira eta handik ikastolara. Orkestrarekin batera, “Txamarra Txartxo”, “Horra Mari Domingi”, edota “Ai! Hau gabaren” kantatuko dute DBH 4.mailakoen bertsuekin batera.

Urtarrilaren 10 arte, jai

Gurasoak lagunduta Agerialdetik 11:25 aldera irtengo dira HH-ko haurrak. Bidean bitan geldituko dira, ikastola aurrean eta Bordatxo pareko errotondan. Gero frontoira jaitsiko dira. Bidean, “Din, dan, don”, “Oilarrak kantari”, “Bizar Zuri”, “Ator, ator”, “Mendi aldetik” edo “Alaken” kantu ezagunekin Kaxkoa girotuko dute.

Udarregi ikastolatik ohartarazi duteenez, egun horretan autobusa 12:30etan hartu behar duten Haur Hezkuntzako ikasleek, Bordatxo ingurura gerturatu beharko dute. Jangelan gelditzen dire-

nak, irakasleekin itzuliko dira ikastolara. Bertaratzeko asmoa duten guraso edo arduradunek, emanaldia bukatuta frontoian bertan elkartu ahal izango dira haurrekin.

Eguerdi horretatik aurrera, eguberrietako oporrez gozatzeko tarte zabala izango dute ikasle eta irakasleek. Errege Egun osteko zubia dela eta, ohi baino beranduago, urtarrilaren 10ean helduko diote berriz ikasturteari.

Abenduaren 21ean kantu kantari

09:30. LH eta DBHko ikasle eta irakasleen irteera.

LHkoen ibilbidea: Ikastola-Kalezar-Bordatxoko errotonda-Ikastola.

DBHkoen ibilbidea: Ikastola-Atxegalde-Kale Nagusia-Eguzkitzaldea-Bordatxoko Errotonda-Ikastola.

11:25. HH ikasle eta irakasleen irteera. Ibilbidea: Agerialde-Ikastola aurrea-Bordatxoko Errotonda-Frontoia.

Hainbat usurbildarrek sustatu dute

Bitoriano Gandiagaren abesti eta poema liburu eguneratua

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan aurkeztu ostean, Usurbilen ere salgai dago jada “Gabon bat anuntzio. Soinuz eta kantuz (Bitoriano Gandiaga)” kantu eta poema liburua. Usurbil eta Arantzazuko frantziskotarren harremanaren ondorio da eguberriei lotua dagoen lan hau. Zenbait usurbildarrek parte hartu dute egitasmoan; tartean, Joan Luis Atxegak.

NOAUA! Kantu eta poema bilduma eguneratu gisa definitu daiteke?

Joan Luis Atxega. Eguneratua, lehen edizioa egin zenetik 25 urtera. Bitoriano Gandiaga eta Pello Zabalen arteko elkarlana izan zen. Lehengoan Pellok esan zuen bezala, ez da kolpera egindako lana, hiruzpalau urteetan egindakoa baizik. Gandiagak egiten zituen gabon inguruko poemak bildu eta Pellok musika jarri. Tartean dira, Arantzazuko auzoan egiten ziren erronda kantuak.

JOAN LUIS ATXEGA

“Onena da duela 30-40 urte inguruko poemak direla, gaur egun balio dutela eta hemendik bi mila urtera balioko dutela”

N. Gabonei begirako liburu bat da?

J. L. A. Gabon kanta edo poemen inguruan lanean nabil. Dudarik gabe, ezagutu ditudan sakonenak dira. Hiru zatitan banatu izan dut liburu hau. Lehen zatian, Jainkoa datorrela dioen deia jasotzen da. Hurrengo, berria, jainkoa jaio dela, poztasuna azaltzen duena. Eta hirugarrena, sakonena eta indar gehiena duena, gizarteari kritika egiten dion egia izango litzateke. Onena da duela 30-40 urte inguruko poemak direla, gaur egun balio dutela eta dudarik gabe, hemendik bi mila urtera balioko dute.

N. Zer dela eta lan hau?

J. L. A. Lan hau organoari lotua dago. Lotura handia izan du Usurbilek frantziskotarrekin. Hainbat kide daude oraindik Arantzazuri lotuta. Eta moja klarisatarrak ere bai, Usurbilgoak direnak. Organoaren handitze prozesuarekin ginenean, aurrera jo edo ez eztabaida izan genuen. Oso desanimatuta aurkitu gintuen, uzteketan ginen. Frantziskotarrek laguntza morala eman ziguten, horri aurrera atera behar zela esanez. Horren inguruan sortu zen liburuaren ideia. Batzordean ginenak bildu eta haiei opari bat egitea pentsatu genuen.

N. Usurbildarrok egitasmo honetan zer modutan parte hartu duzue?

J. L. A. Ramon Udabek bere partiturak txukundu zituen eta hortik aurrera konposatzen hasi nintzen, teklatu eta euskarri informatikoak baliatuta. Hasierako ideia zen, nolabaiteko play-back-a sortu, musika jarri eta horren gainean jendeak abesteko. Oso emaitza ona da.

N. Liburua irakurtzeko, baina gida ere bada abestu nahi dutenentzat?

J. L. A. Oso aberatsa da. Badira zenbait abesti historiko, moja eta frantziskotar usurbildarrek parte hartuz abesten dituztenak. Garai batean zituzten grabaketetan abesten dute. Badira Arantzazuko auzoan burututako errondako abestiak, Gandiagaren parte hartzearekin. Baita era librean egindako hainbat abesti ere.

N. Kantu zaleei edo nori dago zuzendua liburua?

J. L. A. Kantu zaleei bai. Euskal gabon kanten inguruko ondarea litzateke, kopuruz eta musikatzeari dagokionean, aberatsena da.

N. Esan liteke, Gandiagak zuen harreman sarearen emaitza dela elkarlan hau?

J. L. A. Bai, dudarik gabe. Ehunka orduetako lana da. Sakontasunera iristeko, asko mamitu behar izan da. Neure



JOAN LUIS ATXEGA, DISKO LIBURUA ESQUETAN. MUSIKA MOLDAKETAK BERAK EGIN DITU.

bizitzan utzi du nolabaiteko arrastoa. Lan sorpresa izan da beraientzat, ez zekiten. Gustura geratu zen Pello Zabala.

Lizardi, Laurok eta NOAUA!n salgai dago

Izenburua: “Gabon bat anuntzio. Soinuz eta kantuz. (Bitoriano Gandiaga)”.

Orrialde kopurua: 188.

Edizioa eta diseinu orokorra: Paulo Agirrebaltzategi.

Partiturak: Ramon Udabe.

Doinuak: Pello Zabala eta Joan Luis Atxega.

Musika-moldaketak: Joan Luis Atxega.

Ahotsak: Edurne Agirre, Migel Noble, Pello Zabala, Arantzazuko Korua, Gabon errondako taldea.

Errezitazioa: Bitoriano Gandiaga.

Irudiak eta azala: Xabier Egaña.

Salgai: NOAUA!-n, Laurok eta Lizardi liburu dendetan.

**18an
babesa
eman!**



**Abenduaren 18an
eguerdiko 13:00ean
frontoitik abiatuta,
GIZA KATEA egingo dugu
udaletxeko plazaraino.
zatoz!**

orain!
Legalizazioa
Gora ezker abertzalea!

Abenduaren 18an Eskuratu BERRIArekin zure kioskoan



**xabier
lete**

Xabier Letek 1974. urtean
kaleratu zuen bakarkako
lehen disko luzea, CD formatuan

*"Sinisten dut
hartuko nauen lur hortatik
landare berriak sortuko direla"*

Xabier Lete oroituz



Herrialdeko eragileekin bilera erronda burutuko du Gipuzkoa Zero Zabor herri mugimenduak

Zaborren eta Errausketaren Kontrako Munduko Eguna ospatu eta egun betera, abenduaren 2an Sutegiko auditorioan bildu ziren, Gipuzkoako hainbat udalerrietan alor honetan lanean diharduten zero zabor taldeetako ordezkariak. Gipuzkoako eragile desberdinekin biltzeko errondari ekingo diotela iragarri zuten.

Eragile politiko, instituzional, ekonomiko eta sozialekin biltzeko asmoa du Gipuzkoa Zero Zaborrek. Tartean, baita Ahaldun Nagusi Markel Olanorekin ere. Hala iragarri zuten abendu hasieran, besteak beste, hainbat udalerrietan lanean diharduten herritarrekin batera, Usurbil, Hernani, Donostia, Orio eta Zarautz Zero Zabor taldeetako ordezkariak Sutegin eskaini zuten prentsurrekoan.

Usurbilgo Itunak jaso bezala, Zubietan eraiki asmo duten errauste plantarentzat moratoria eskaera berretsi zuten. Gogorazi zuten, "oraindik garaiz gaude, baldin eta denon lehentasuna herritarren osasuna, ongizatea eta justizia baldin badira". Hondakinak egoki kudeatuta, gizartea aldatu beharra dagoela diote, "kontsumitzeko eredu arrazoizkoagoa antolatzeke, gizakien artean ondasunen banaketa justoagoa lortzeko eta, oro har, gure ondorengoei mundu iraunkor eta hobe bat uzteko".

Hondakinak hobeto kudeatzeko eskaera

Zehaztu zuten, hondakinak egoki kudeatzeko erronkari, "modu egokian erantzun behar diogu. Denon artean. Arazo larri hau burubidez, arrazionaltasunez bidera dezagun". Hitz hauek herrialde osoari helarazi nahi dizkiote. Testuinguru horretan kokatu behar dira hain zuzen, agerraldian Gipuzkoako eragile, ordezkari politiko edota herritarrekin burutu nahi dituzten bilkurak. Eta haiei guztiei hainbat mezu helarazi nahi izan zizkieten.

Hasteko, epaileei eta justizia alorrean



GIPUZKOA ZERO ZABOR MUGIMENDUKO ORDEZKARIAK SUTEGIN.

lan egiten dutenei, eskubide berdintasunean oinarrituriko epaiak eman ditzaten. Politikariei, gaia lehia politikotik atera eta hondakinak hobeto kudeatzeko dauden aukerak azter ditzaten, euren esanetan "herritarren osasuna eta ongizatea" kontuan izanda. Foru Aldundiari eta Ahaldun Nagusi Markel Olanori udalen autonomia errespetatu eta hondakinen kudeaketan "lan ona eta emaitza onak lortzen dituztenak baloratu" eta babestea galdegin zieten, 2009rako prest behar zuten hiru konpostatze plantak funtzionatzen jartzea eskatzearekin batera.

Arduratsu jokatzeko deialdia

Ildo beretik, Partzuergoari atez ateko

bilketa burutzen duten udalerriak lagundu ditzala galdegin zuten. Hondakinak kudeatzen dituzten enpresei zuzenduz aldiz, "epe laburreko negozio gosea ez dadila izan zuen estrategia bakarra" adierazi zieten, eta honenbestez, amiantoarekin gertatu dena errepikatzea saihestea.

Gipuzkoako hedabideei ere zuzendu ziren Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko ordezkariak. Informazio objektiboa bilatu, ezagutu eta zabaltzea eskatu zieten eta intoxikazio ahaleginei amore ez ematea. Eta azkenik herritarrak, hondakinen kudeaketaz arduratu eta agintariei Zero Zabor helburura gerturatzen duten politikak aplikatzea exijitzera deitu zituzten.

Atalluko larrialdi gunea erabiltzeko giltza eska daiteke, kasu berezietarako soilik

Duela hilabete batzuetatik landa deremuko bizilagunek bakarrik erabil dezakete Atalluko gunea. Aurrerantzean ordea, gainerako herritarrek ere hondakinak bertan uzteko aukera izango dute, beti ere larrialdi kasuetan soilik eta bertara sartzeko giltza eskatzen badute. Udaletik berri eman dutenez, horretarako gaur egun

Puntapax kalean kokatua dagoen Atez Ateko bulegora jo beharko du erabiltzaileak. 3 euroko fidantza ordainduta, herritarrak eskatutako egunean giltza erabiltzeko aukera izango du.

Giltza egun horretarako bakarrik aktibatuko da. Eguna amaitu eta giltza Atez Ateko bulegora itzulitakoan, erabiltzaileari fidantza bueltatuko zaio.

Hizki zopa!



Kaixo lagunok! Joan den hilaren 4an txango bat egin genuen. Bidean khonako baserri hauek ikusi genituen. Ea hizki zopa honetan aurkitzen dituzuen: **ARRATZAINBERRI, DRANBANE, ERROTABERRI, ETZABAL, IARBE, OLLOKI, SANTSONENEA, SAÑARRENEA, UDARREGI, ZUMITZAGA.**

H	R	Ñ	D	Y	B	S	Q	B	O	A	C	A	L	J
D	Y	F	O	R	F	L	U	F	A	H	J	M	A	J
X	F	S	G	J	A	M	G	M	E	B	R	A	I	A
L	S	I	U	B	E	N	W	I	H	G	W	J	Ñ	E
T	C	K	I	R	R	E	B	A	T	O	R	R	E	N
L	V	O	F	U	S	G	T	A	C	L	K	X	G	E
S	C	L	S	A	N	T	S	O	N	E	N	E	A	R
E	P	L	E	T	Z	A	B	A	L	E	E	R	P	R
A	E	O	M	P	E	A	D	X	W	U	A	R	J	A
K	W	A	G	A	Z	T	I	M	U	Z	R	O	Y	Ñ
K	V	U	Z	Y	C	H	A	M	Ñ	O	F	E	A	A
V	J	N	N	E	Z	W	J	J	U	P	O	F	N	S
G	P	K	D	G	T	K	F	X	U	T	O	C	Q	D
A	I	R	R	E	B	N	I	A	Z	T	A	R	R	A
U	D	A	R	R	E	G	I	I	Z	T	M	S	I	O

Abenduaren 22tik aurrera, Gabonetako ludoketa Aginagan

Antxomolantxak hainbat eki-
taldi antolatu ditu datozen
egunetarako. Abenduaren 22an,
Gabonetako ludoteka irekiko dute
goizeko 10.30etik 13.30era, begirale
baten gidaritzapean:

Abenduak 22, 23, 27, 28, 29, 30.
Urtarrilak 3, 4, 5, 7 eta 8.

Bestetik, Abenduaren 30ean
17:00etan, bertso-antzerkia izango
da, Bikokotearen eskutik.

Eta urtarrilaren 4an, ipuin konta-
laria hurbilduko da Aginagara.
Arratsaldeko 16:00etan izango da
hori. Eta urtarrilaren 7an Kutxa-
espaziora joango dira. Arratsaldeko
15:00etan abiatuko dira.

Bataio zibila egin ahal izateko ordenantza, hasieraz onartua

Usurbilen erroldatuta dauden
edota erregistratzeko eska-
tzen duen herritar orok inskribatu
ahal izango dute, harrera zibilen
udal erregistroan. Alor hau arautu-
ko duen ordenantza hasieraz onartu
berri du udalbatzak, azken osoko
ohiko bilkuran.

Erreklamazioak egiteko epea

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari
Ofizialean argitaratu ostean, 30 lane-
guneko epea dago alegazioak aurkez-
teko. Denbora tarte horretan, erre-
klamaziorik aurkeztuko ez balitz,
behin betirako onartutzat joko da
aipatu udal ordenantza.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 • ASTEASU

☎ **943 69 68 52 • 620 800 186**



TAXI

**677 37 34 66
943 36 69 69**

Jose Etxabe (24h) USURBIL

**Zuen
publizitatea
hemen**

☎ **943 360 321**
publizitatea@noaua.com

Heziketa eta kirolaz gozatzea, Usurbil FT-ko infantilen taldeen denboraldiko erronkak

Maila honetan ordezkaritza-rik ez egotetik, bi talde izatera pasa dira Usurbil FT-koak. Ondo pasatzearekin batera, heziketa da bereziki bultzatu nahi dutena. Asier, Mangas anaiak, Mattin eta David Asensio prestatzaile eta Manu Urbieta koordinatzaile dituen taldeek lortutako emaitzekin gustura dabilta denboraldi hasiera honetan.

NOAUA! Aurkeztu itzazu bi taldeak.

Manu Urbieta. Bi talde osatu ditugu. DBH 1ekoa aurten sortua da. 19 jokalarik parte hartzen dute, eta DBH2-koan hamazazpik.

N. Infantil mailako talderik ez zen izan aurreko denboraldian. Aurten kolpean bi talde. Gustura ezta?

M. U. Iaz, taldea osatu zen, gogo askorekin erantzun zen. Aurten DBH 1eko lauzpabost ikasle eskubaloian dabilta. Besteek, futbola aukeratu dute. Gogoz eta ondo ari dira erantzuten.

N. Maila berean bi talde egonik, elkarren artean zer lotura dute?

M. U. Helburua, kirolaz gozatzea da. Hori argi dugu bai nik eta baita zuzendaritza taldekoek ere. Asteartetan DBH 1ekoek entrenatzen dute, astelehenetan DBH 2-koek. Eta ostiraletan elkarrekin entrenatzen dute.

Epe luzera pentsatuz, bi taldeak bilduta talde on bat osatu liteke, baina Usurbilen helburu nagusia ez da hori. Kirolari bezala hezte eta kirolaz gozatzeari baizik.

N. Zeintzuk dira bi taldeon ezaugarri nagusiak?

M. U. Lehen urteko taldekoek, orain arte beste neurri batzuekin jokatu dute futbolean. Seigarren mailan zabalera jokatzen dute. Jada futbol hamaikara jokatzen dugunean, espazio handia da. Orduan, ikusarazi behar zaie tokian egon behar dutela, zelaia handia dela, ondorioz fisikoki ere lan pixka bat egin hasten dira. Badaude landu beharreko ezaugarri batzuk. Lehen urtekoak



BI TALDE ARI DIRA INFANTIL MAILAN.

lan horietan zentratzen dira. Bigarren urtekoak, gehiago gozatzen hasten dira. Emaitzei garrantzia kentzen ahalegintzen garen arren, kirola gaur egun antolatua dagoen moduan, irabazte horrek garrantzia handia du. Horregatik, senide, gelako lagun eta inguruko jendea partidak ikustera etortzean, antsia hori izaten dute.

N. Lehiakortasunak eragin nabarmena du beraz?

M. U. Gauzak behar den neurrian ikustea hori ez da egun batetik besterako lana. Poliki-poliki lantzen ari gara. Eta lehen esan bezala, neurketetan jokatzeak aukerak denek dituzte. Beti esaten duguna, aste barruan lana egoki egin duenak, eta aste barruko entrenamendu saioetara etorri eta jarrera egokia duenak, beti izango du jolasteko aukera.

Zubietarrak, oso ondo Joko Garbi txapelketan

Zubietarrek final erdiak jokatu zituzten Joko Garbi-ekzer horman, baina "zoritxarrez galdu egin zuten". Bikotea Josu Aizpuruak eta Jon Huizik osatu zuten. 40-26 galdu zuten. Finala, datorren igandean jokatuko da Kanboko frontoian.

Gipuzkoako Pilota Txapelketa

Kadeteak 2. maila finala, Hernani Abenduak 18 larunbata, 17:00h
Aurrera Saiatz - Usurbil
(Tolosa) (I.Ibargoiien-A. Telleria)

Kantu Taldekoak Durangoko Azokan izan ziren kantuan

Durangoko liburu eta disko azoka probestuz, Euskal Herriko Kantuzaleen Elkartek Kantu Jira Nazionala antolatu zuen abenduaren 5ean. Usurbildik 17 kantuzale joan ziren bertara. Xabier Leteri omenalditxo bat egin zitzaion, kantutegia horretaraxe egokituz. Usurbilgo Kantu Taldeetik joan zirenak diotenez, "hunkigarria izan zen" Durangoko kantaldia.

Kantu-jiraren ondoren, "Kantu Bazkarian 260 lagun elkartu ginen, aparteko giroa sortuz. Eskerrak eman nahi dizkiegu bat bateko antolaketa hau burutzen aritu ziren guztiei", azaldu digute Usurbilgo Kantu



GABONEN ONDOREN, URTARRILAREN
11N HASIKO DIRA ENTSEGUAK.

Taldeko kideek.

Gabonetan entsegurik ez

Abenduaren 14ean egin zuten urteko azken entsegua. Urtarrilaren 11n hasiko dira entseguekin berriz ere: "ateak irekita dauzka gurekin batera kantatu nahi duen guztiak".

Zuzendaritza berritzeko garaia Gure Pakea elkartearekin

Gure Pakea elkarteak aditzera eman duenez, zuzendaritza batzordearen %50 berritu behar da 2011ko urtarrilean egingo den batzarrean. Hauteskunde epea ireki berri da egunotan.

Gure Pakeako edozein bazkide aurkez daiteke hautagai gisa, 2010eko abenduaren 23ra arte. Nola egin behar da? Ba hiru modutara egin daiteke:

Bulegora hurbilduz, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara.

E-postaz: gurepakea@ymail.com

Telefonoz: 943 368 770.



GURE PAKEAREN EGOITZA DA
ARTZABAL BASERRIA.

Bestalde, ohar hau helarazi nahi diete jubilatuei: "UDP edo Estatuko karnetak etorrita daude, lehenbailehen jasotzera etorri zaitezte". Artzabal base-riko bulegotik pasa, goizez.

Anariren

kontzertua Sutegin

Anari kantariak "Irla izan" ize-
Aneko diskoa plazaratu zuen
iaz. Horko abestiak eskainiko ditu
larunbat honetako kantaldian.
"Txinaurriak" Mikel Laboaren ome-
nez plazaratu berri den diskoan ere
hartu du parte. Sarrerak dagoeneko
salgai daude kiroldegian. Bestela,
larunbatean bertan eskuratu ahal
izango dira Suteginiko atarian.
Kontzertua 22:30ean hasiko da.



SARRERAK ALDEZ AURRETIK
MERKEAGO, KIROLDEGIAN SALGAI.

Mendi Astea, bete-betea

Abenduak 16, osteguna
19:00 "Shesheren herrialdean"
ikus-entzunezkoa Sutegin. Felipe
Uriarteren eskutik.

Abenduak 18, larunbata
8:00 Orio-Usurbil mendi ibilal-
dia, Usurbilgo tren geltokitik
irtenda. Trenez Oriora, eta handik
oinez itzulera Usurbila. Ondoren,
bazkaria Patri jatetxean irteeran
parte hartu dutenekin.

Abenduak 19, igandea
9:00 Ibilaldia haurrentzat.

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

USURBIL AUTOAK
TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SALMENTA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Agenda !

Abenduak 17 ostirala
Akerra gaztetxekoek deitutako bilera, 22:30ean Artzabalaren.

Abenduak 18 larunbata
- Erabilitako jostailuen truke azoka, 11:00etan frontoian.
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots Oiardon, 16:00/ 18:30. Sarrerak: Bordatxo, kiroldegia, Marije denda.
- Santo Tomas txistor jana eta Dj Larra. 19:30ean Santuenean.
- Anari, Sutegin 22:30ean.

Abenduak 19 igandea
Goizean, Santo Tomas azoka. Babarrun eta sagardo lehiaketa.

Abenduak 21 asteartea
Potxin eta Patxin pailazoak Santuenean. Ondoren, txokolate-jana.

Abenduak 26 igandea
San Esteban Txiki Eguna Urdaiaga auzoan. Meza 11:00etan. Ondoren, hamaiketakoa.

Goardiako farmaziak

Abenduak 16, osteguna
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 17, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 18, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 19, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 20, astelehena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 21, asteartea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 22, asteazkena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Abenduak 23, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 24, ostirala
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 25, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 26, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
*Chupa farmazia (22:00-09:00),
Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdina arte*

“Mihiluze” onak izateagatik, Port Aventurara joango dira

Usurbildarrak nagusi oraingoan ere. Haur eta gaztetxoei parte hartzen duten Euskal Telebistako “Mihiluze” programaren larunbatetako edizioa bi usurbildarrek irabazi zuten, joan den abenduaren 4an. Malen Azpiazu eta Olatz Allurrek hain zuzen, biak 10 urtekoak. Eta ez dira esku hutsik etxeratu, noski. Saioko kamiseta, mahai-joko berria eta Wii-a irabazi zituzten. Baina baita opari potoloagoa ere; Port Aventurara familia osoarentzako bidaia. Zorionak bioi!



IRUDIAN, OLATZ ALLUR ETA
MALEN AZPIAZU, TELEBISTA
SAIDAREN UNE BATEAN.

Akerra Gaztetxekoen bilera, ostiral honetan

Txokoaldeko Akerra Gaztetxea biziberritzen dabil herriko gazte talde bat. Aurrerantzean gauzatu daitezkeen ekimenek begira jarriak daude orain. Horregatik, ostiral honetarako, abenduak 17, Akerra Gaztetxekoek bilera deitu dute.

Bilerarako hitzordua Artzabalaren finkatu dute, gaueko 22:30ean. Deitzaileek zehaztu dutenez, “urtean zehar egin daitezkeen ekimenak landuko dira. Anima zaitetz gazte!”.

Atxegan bazkaria, Usurbil KE-ren eskutik



Eskubaloi taldekoen zozketan parte hartu zuten eta horri esker bazkari eder bat irabazi zuten. Klubetik partehartzen duten guztiak eskertu nahi dituzte.

Webgune berria du Zumartek

Zumarte Musika Eskolak web Zorri berria du. Aurrerantzean, helbide honetan izango duzue Musika Eskolaren berri: www.zumarte.org

Bestetik, Musika Eskolako 25. urteurren ospakizuneko DVDa oparitutuko zaie gaur egun Zumarteko ikasle-irakasle diren guztiei, baita egun horretan parte hartu zuten ikasle eta irakasle ohiei ere. DVDa eskuratzeko, Zumarteko bulegotik pasa behar da astearte, ostegun edo ostiralean 17:00-19:30.



WWW.ZUMARTE.ORG

Gabonetako oporrak

Abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra bitartean, Zumarte Musika Eskola itxita egongo da.

ETXEBIZITZA

- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686969112.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299.
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldiarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaillean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da, 85 euro. 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeak bi marra dauzkat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrerara egokia. 943373414.
- Zapi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004

- urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajejan egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494.
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489.
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847.
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- LHko bi umeei bazkaria emateko norbaiten bila gabilta. Egokiena kaxkoan bizi den norbait. Telf. 689 769282.
- Andazpe Elkartean garbiketarako egiten ariren direnak jubitlertza doaz eta bi pertsona behar dira hauek ordezkatzeke. Deitu 943361536 edo jarri harremanetan Andazpeko zuzendaritzako kideekin.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinake? Hala bada, pasa zaitz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Emakume esperientziaduna eta errefenrentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123.
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Neska bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen dituz ikasgai guztiak. Usurbilgo lokallean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com.
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsonak helduak zaintzeko. 696537247.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzekeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igelsteritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteok orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757.
- 23 urteko mutila. Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osoarako. Lanean berehala hasiteko: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571.
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean.

- Iñaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakume interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Barxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- 5 plazaok Roller karabana bat daukagu salgai abantzia eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. Interesatuak deitu 676453176 zenbakira.
- Hemengo intxurak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Administrazioko perfil guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrek ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- Gurgildun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa eta silla ditu eta burbuja eta zakutxo ere bai. Interesatuak deitu 616586851 telefonora.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874.
- Wii konsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garrantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637.
- Argazki zaharrak beritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatuan. 635729637.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina, 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com.
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ohea egiten den 3 plazaok sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915.
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien motal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.

Zorionak Ibai!

Hartu ondo haizea hiru kandlei putz egiteko abenduaren 15ean! Muxu handi bat etxekoan partez.

Zorionak Haitz! Abenduaren

13an 5 urte bete dituzu. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

Zorionak Aner!

Abenduaren 5ean 3 urte bete zenituen. Muxu asko gu denon partetik, pottoko!

Zorionak Amets! Abenduaren

9an egin dituzu 9 urte. Besarkada handi bat eta muxu potolo bat etxekoan partez!

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasoak. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... NOAUA!ra ekartzeko azken eguna: **astearte, eguerdiko 12:00etan.**
E-postaz: erredakzioa@noaua.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92


- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
- ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
- Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzuak
- ASEGURU konpaini GUZTIAK, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Lekualdaketak, eskelak, urteurrenak...
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN izango da gure eskutik

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es




Gabonetan oparitzeko aukera aparta!!!

943 36 82 06
Zubiaurrenea 3, baxua



movistar
HERNANI

ELKANO KALEA 13, HERNANI 943 33 26 00

Gure denda berritu dugulako, gabonetarako **PROMOZIO** bereziak ditugu;
Mugikorra, mugikorrentzat internet-a, ADSL-a, TRIO (linea + adsl + imagenio)
kontratatzean, **PACK** bat erosterakoan...**OPARIAK!!!**
ZATOZI KONPROMISORIK GABE, AHOLKU EMANGO DIZUGU

Bisita ezazu ere gure **DENDA "TELEMAR"**, digital eta HD telebistetan,
lurreko eta satellite bidezko antenetan adituak. **ESKATU AURREKONTUA.**
Telekomunikabide ministerioko erregistro zb 6855

ELKANO KALEA 13 (movistar ondoan) ETA NAGUSIA 7 , HERNANI 943 55 33 99

Santo Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



Babarrun eta
sagardo **lehiaketa**

Abenduaren
igande goizez

19an



Usurbilgo Udala

USURBILGO
SAGARDO
EGUNAREN
LAGUNAK

Noaua!!

www.noaua.com